

8. Eranskina

ARIKETEN DISEINUA

1. Pre-test

Helburua	Ikasleek aurretik duten autoezagutza fisikoa identifikatzea, amaieran izango dutenarekin alderatu ahal izateko.
Edukiak	Autoezagutza
Gaitasunak	<ul style="list-style-type: none">Norberaren autonomia eta ekimenerako gaitasuna: izan ere, ikasle bakoitza bere galdetegia egiten arituko da.
Ariketaren deskribapena	<p>Ikasle bakoitzari Pre-testa banatu egingo zaio. Ondoren, item guztiak, bai itxiak zein irekiak, denon artean irakurriko dira, zalantzak egotekotan, horiek argitzeko eta lana burutzen den bitartean sortu daitezkeen arazoak edo zailtasunak saihesteko. Irakurketa ozena egiteko, banan-banan joango dira item bakoitza irakurtzen, eta esan bezala, norbaitek adjektiboren bat ulertu ez duenean, eskua altxatuko du eta argitu egingo zaio.</p> <p>Dena irakurrita eta argituta dagoenean, item bakoitzari erantzuteko, bakoitzean esaten denarekin ados baldin badaude “ados nago” markatu behar dutela azalduko zaie. Guztiz ados ez badaude, hau da, erdi ados egotekotan, “erdi ados” markatu behar izango dute eta ados ez egotekotan, “ez nago ados”.</p> <p>Azalpena eman eta gero, ea ulertuta geratu den ala ez galdetuko zaie eta zalantzarik ez egotekotan, galdera irekia irakurriko da. Honetan, haien burua deskribatu behar dutela aipatuko zaie, haien fisikoa nolakoa den adieraziz. Idazteko lerroak zehaztuta egon arren, ikasleren batek gehiago idatzi nahi izatekotan gehiago idatzi dezakeela aipatuko zaie. Den dena argituta dagoenean, bakoitzak bere galdetegia egiten hasiko da eta bukatu egiten dutenean, hauek batu egingo dira, hurrengo ariketarekin hasteko.</p> <p>Aipatzekoa da, ikasleek galdetegia egiten dauden bitartean, ikasle bakoitzari dagokion galdetegiko zenbakia apuntatu behar izango dela, Pre-testa banatzerako orduan, kontuan izateko.</p>
Espazioa	Gela
Denboralizazioa	25 minutu
Erabilitako materiala	<ul style="list-style-type: none">Aurretik diseinaturiko Pre-testa
Ebaluazioa	Pre-testaren ebaluazioari dagokionez, bertan lortutako emaitzak, Post-testan lortutakoekin alderatu egingo dira, ikasleengan aldaketarik eman diren ala ez ikusteko.

2. “Denok gara...”

Helburua	Ikasleak gaian murgiltzen joatea, haien aurrezagutzak gainerakoekin amankomunean jarritz.
Edukiak	Autoezagutza eta errespetua
Gaitasunak	<ul style="list-style-type: none">• Norberaren autonomia eta ekimenerako gaitasuna: bakoitzak bere ideiak adierazi egingo ditu.• Giza eta herritartasunerako gaitasuna: ikasleen artean eztabaida sustatuko denez, kideak eta baita hauen iritziak errespetatzeko ahalmena landu egingo dute.
Ariketaren deskribapena	<p>Bigarren jarduera honetan, ikasleei interbentzioaren leloa aurkeztuko zaie eta horretarako, txartela arbelean itsatsita jarriko da, jesarleku guztietatik ikusi ahal izateko.</p> <p>Leloan, lau esaldi desberdin bereiztu daitezkeenez, ikasleak, banan-banan joango dira esaldi bakoitza irakurtzen. Irakaslea gidaria izango da eta ikasleen erantzunen arabera, zenbait galdera planteatuko ditu. Era honetan, ikasleak hausnartzen hasiko dira, haien iritziak eta pentsamenduak gainerakoekin partekatuz, haien artean eztabaida sortuz eta denon parte-hartzea sustatuz.</p>
Espazioa	Gela
Denboralizazioa	20 minutu
Erabilitako materiala	<ul style="list-style-type: none">• “Denok gara...” deituriko txartela
Ebaluazioa	<p>Bigarren ariketa honen ebaluazioa erreparatuz, saioan zehar, ikasleek irakasleak egiten dizkien galderari ematen dituzten erantzun esanguratsuenak eta nabarmenenak erregistratu egingo dira.</p> <p>Gainera, ariketa hau, Post-testa egin aurretik berriz ere egingo denez, ikasleek, hasieran esaten dutena, amaieran esaten dutenarekin ere konparatu ahal izango da, berdin pentsatzen jarraitzen duten ala ez ikusiz.</p>

3. “Autoezagutza desberdinak ezagutuz”

Helburua	Ikasleek autoezagutza hitzaren definizioa eta dauden autoezagutza desberdinak ezagutza, arrazonamendu maila landuz.
Edukiak	Autoezagutza
Gaitasunak	<ul style="list-style-type: none">Giza eta herritartasunerako gaitasuna: taldean lan egingo dute, beraz gainerakoak entzun eta denon artean, adostasunak hartu behar izango dituzte.
Ariketaren deskribapena	<p>Ikasle bakoitzari “Autoezagutza desberdinak ezagutuz” deituriko koadernoan banatuko zaio. Ondoren, koadernoaren portadan, norberak bere izena jartzeko aipatuko zaie.</p> <p>Jarraitzeko, denon artean, autoezagutzaren definizioa sortu behar izango dute. Horretarako, irakasleak, arbelean autoutoezagutza hitza bananduta (<i>auto</i> eta <i>ezagutza</i>) jarriko du, ikasleek hitz bakoitzarekin zer esan nahi den adierazteko eta ondoren, esandakoarekin osatutako definizioa haien koadernoetan dagokion atalean idazteko.</p> <p>Definizioa behin osatuta, autoezagutza mota desberdinak ezagutuko dituzte. Horretarako, ikasleak txandaka joango dira irakurtzen eta egoera bakoitzetik autoezagutza fisikoa nolakoa den adierazten duten ezaugarriak identifikatzen eta horiek markatzailearekin azpimarratzen joango dira.</p> <p>Ezaugarriak identifikatuta daudenean, irakasleak, ea irakurritakoaren inguruan zer pentsatzen duten, ea bera bezalakoa den beste inor ezagutzen duten... galdetuko die.</p>
Espazioa	Gela
Denboralizazioa	45 minutu
Erabilitako materiala	<ul style="list-style-type: none">Sortutako “Autoezagutza desberdinak ezagutuz” koadernoan.
Ebaluazioa	Ariketa honetarako, pertsonai bakoitzaren egoera irakurri eta ezaugarriak azpimarratu ondoren, ikasleek amankomunean adierazitakoa erregistratu egingo da, egoera bakoitzaren inguruan zer pentsatzen duten adieraziz.

4. “El circo de las mariposas”

Helburua	Ikasleek sinestaraztea, norberak duen fisikoa duelarik, bere buruarengan sinestu behar duela nahi duena lortu ahal izateko. Honekin batera, gainerakoan fisikoa onartu eta errespetatu egin beharraren ideia barneratzea.
Edukiak	Autoezagutza eta errespetua
Gaitasunak	<ul style="list-style-type: none"> Norberaren autonomia eta ekimenerako gaitasuna: ikasle bakoitzak, ikusiko duten pelikulan aipatzen den eta esanguratsua iruditu zaien ideiarekin bat idatzi beharko dute. Giza eta herritartasunerako gaitasuna: bakoitzak bildutako ideia bai talde handian zein txikian ere amankomunean jarri beharko dute.
Ariketaren deskribapena	<p>Gaurko saioaren lehenengo 20 minutuetan, ikasleek, “<i>El circo de las mariposas</i>” film laburra ikusiko dute. Pelikularekin hasi baino lehen, ikasle bakoitzari paper zati bat banatuko zaio, bertan, bakoitzak, filma ikusten dauden bitartean, bertan adierazitako ideia nabarmenen bat idatzi beharko dutela adieraziz. Ondoren, pelikularen hasieraren egoera orokorra azalduko zaie, haien burua istorioan kokatzeko.</p> <p>Pelikula ikusi eta gero, ikasleak lau pertsonetako lau taldetan antolatuko dira, bakoitzak bildutako ideia, taldekideekin amankomunean jartzeko eta banatuko zaien kartoi-mehean idazteko.</p> <p>Horri jarraitzeko, talde bakoitzak gelaren aurreko aldera aterako da, kartoi-mehetan zer eta zergatik idatzi egin duten gainerakoei erakusteko, idatzitakoaren inguruko hausnarketa bultzatuz.</p>
Espazioa	Gela
Denboralizazioa	1h 15min
Erabilitako materiala	<ul style="list-style-type: none"> “<i>El circo de las mariposas</i>” (z.g) (Iturria: https://www.youtube.com/watch?v=yp1wX1LIDHM) “<i>Vas a acabar siendo fuerte</i>” (z.g) (Iturria: https://www.youtube.com/watch?v=X_XW6Y-K3QE) Kartoi-meheak
Ebaluazioa	Laugarren ariketa honen ebaluazioari dagokionez, ikasleek egindako kartoi-meheak erabiliko dira, bertan, talde txikietan amankomunean jarritako pelikularen ideia nagusiak edo esanguratsuenak aipatzen direlarik.

5. “Esperientzia desberdinak ezagutzuz”

Helburua	Ikasleen maila emozionala guztiz garatzea, ezagutzen ez dituzten edota ezagutzen dituzten pertsonen esperientziak interesatuz eta enpatia landuz. Honekin batera, nahiz eta minusbaliotasunen bat izanda, bizitzarekin aurrera egin eta nahi duzuna lortu daitekeela sinestea.
Edukiak	Autoezagutza eta errespetua
Gaitasunak	<ul style="list-style-type: none"> Norberaren autonomia eta ekimenerako gaitasuna: ikasle bakoitzak, nahi duen pertsonaiaren inguruko informazioa jaso eta gainerakoei transmititu behar izango du. Giza eta herritartasunerako gaitasuna: ezagutuko dituzten esperientzia desberdin guztien aurrean errespetua landu beharko dute, bakoitza den modukoa onartuz.
Ariketaren deskribapena	<p>Aurreko ekintzako aurkezpenekin bukatu eta gero, saioa bukatzeko geratzen diren minutuetan, bostgarren ekintza honi hasiera emango zaio. Horretarako, ikasle bakoitzari “Esperientzia pertsonalak ezagutzuz” deituriko fitxa banatu, azaldu eta etxean edo liburutegian egiteko eskatuko zaie. Horretarako, banatutako fitxa guztion artean irakurriko da, zalantzak egotekotan, horiek argitzeko. Honetan, minusbaliotasunen bat izanda, aurrera egin duen eta profesionalki edo pertsonalki urrun heldu den pertsona baten inguruko informazioa jaso eta hurrengo egunean, klasean, gainerakoei azaldu behar izango dietela aipatzen da. Ikasleei, nahi duten pertsonaren inguruan egin dezaketela aipatuko zaie, hau da, ez dela zertan mundu maila ezaguna izan behar. Bildutako informazioa, fitxa bertan idatzi egin beharko dute, horretarako eskaintzen den hutsunean.</p> <p>Hurrengo egunean, ikasle bakoitzak, gainerakoen aurrean jarri beharko da, aukeratu duten esperientziaren inguruan hitz egiteko. Bitartean, gainerakoak, hitz egiten dagoena errespetuz entzuten egongo dira eta zer edo zer gehitu nahi izatekotan horretarako aukera izango dute.</p>
Espazioa	Gela.
Denboralizazioa	2h 30 min
Erabilitako materiala	<ul style="list-style-type: none"> Esperientziatarako prestatutako fitxa <i>Winter</i> izurdea ikusteko <i>web-cam</i> (Iturria: http://www.seewinter.com/animals-exhibits/meet-animals/live)
Ebaluazioa	Bostgarren ariketa honetarako, ebaluaziorako, behaketa-fitxa bat izango da, non ikasleek eskatutako lana ea eginda ekartzen duten erregistratuko den. Izan ere, eginda ekartzen badute, aukeratutako pertsonaren esperientziaren inguruan irakurri eta interesatu egin direla esan nahi du, haien enpatia landuz.

6. “Ni neu”

Helburua	Ikasleek haien autoezagutza fisikoa hobetzea, haien burua ezagutzuz eta horretaz hausnartuz.
Edukiak	Autoezagutza eta errespetua
Gaitasunak	<ul style="list-style-type: none">Norberaren autonomia eta ekimenerako gaitasuna: norberak berea egin behar du, bere burua nolakoa den pentsatuz eta idatziz.Giza eta herritartasunerako gaitasuna: Ikasle bakoitzak bere burua, bai bere ahuleziekin eta trebetasunekin onartu egiten duenean, gainerakoak ere onartzen eta errespetatzen hasiko da.
Ariketaren deskribapena	<p>Ariketa honetarako, ikasle bakoitzari bere “Autoezagutza desberdinak ezagutzuz” deituriko koadernoak banatuko zaio. Bakoitzak berea duelarik, azkenengo atala egin aurretik, guztion artean aurreko ataletan egindakoa eta ikusitakoa birgogoratuko dute.</p> <p>Ondoren, ikasle batek “Ni neu” atalean zer eskatzen zaien irakurriko du, zalantzak guztion artean argitzeko.</p> <p>Argibideak eman eta gero, ikasle bakoitza, bere deskribapena egiten hasiko da, fisiko nolakoa diren, zein kirola praktikatzen duten, zer egitea gustatzen zaien... azalduz eta aurreko lau pertsonaien egoerak adibidetzat harturik.</p> <p>Honekin batera, norberak norberaren irudia egin beharko du, deskribapenean azaldutakoaren arabera. Beraz, haien burua zelan ikusten duten hitzez eta baita marrazki baten bidez adierazi egin beharko dute.</p>
Espazioa	Gela
Denboralizazioa	45min
Erabilitako materiala	<ul style="list-style-type: none">“Autoezagutza desberdinak ezagutzuz” deituriko koadernoak.
Ebaluazioa	Seigarren ariketa honetarako ez da ebaluazio tresnarik erabiliko, ikasleek idatziko dutena pertsonala delako. Azken finean, honen bidez, ikasleengan, haien buruaren inguruko hausnarketa bultzatu nahi da. Hau da, ikasleek minutu batzuk norbera ezagutzeari dedikatzea.

7. “Nortasun agiria”

Helburua	Ikasleek, munduan haiek bezalako den beste inor ez dagoela onartzea eta ideia barneratzea.
Edukiak	Autoezagutza
Gaitasunak	<ul style="list-style-type: none"> Norberaren autonomia eta ekimenerako gaitasuna: Ikasleek bakoitzaren existentziaz ohartuko da, ezaugarri propioak dituela onartuz. Giza eta herritartasunerako gaitasuna: ikasleek, norbera bakarra dela ikustean, bere buruarekiko errespetua landuko dute, baita gainerakoekiko ere.
Ariketaren deskribapena	<p>Ariketa honetan, ikasle bakoitzari bere Nortasun agiria deituriko dokumentua banatuko zaio. Bakoitzak berea duenean, eta nortasun-agiria zer den ea badakiten galdetuko zaie.</p> <p>Jarraitzeko, idatzi beharreko datuak irakurri egingo dira eta denon artean, orden bat jarraituz, norberak bere datuak idazten joango da. Argazkiak, irakaslearen zerrendatik lortutakoak, datu guztiak jarrita daudenean banatu egingo dira, bakoitzak dokumentuan dagokion laukian itsasteko.</p> <p>Ondoren, hatz-marka jartzeko, irakasleak ikasle bakoitzaren mailara hurbildu egingo da tinta pote batekin. Ikasleek haien bigarren atzamarra tintan sartu eta honen marka haien dokumentuan jarri beharko dute.</p> <p>Nortasun agirian eskatzen zaizkien datu guztiak behin zehaztuta, ikasleak haien artean, haien agiria gainerakoekin konparatzen hasiko dira, haien jesarlekuetatik altxatuz.</p> <p>Ondoren, behaketa eta konparaketa horretaz, bakoitzak zertaz ohartu egin den adierazi beharko du, guztion artean horren inguruko hausnarketa egingez.</p>
Espazioa	Gela
Denboralizazioa	45 min
Erabilitako materiala	<ul style="list-style-type: none"> Diseinatutako nortasun agiriaren dokumentua.
Ebaluazioa	Ariketa honetarako, erabiliko den ebaluazio tresna, behaketa fitxak izango dira. Hauetan, ikasleek ea haien nortasun agiria betetzen duten eta ea parte-hartzen duten erregistratu egingo da.

8. “Denok gara...”

Helburua	Ikasleek, denok desberdinak, bereziak, bakarrak eta garrantzitsuak garela sinestea eta ideia hori ondo barneratuta izatea. Honekin batera, ikasleek aurreko ariketetan landutakoarekin lotzea.
Edukiak	Autoezagutza eta errespetua
Gaitasunak	<ul style="list-style-type: none">• Norberaren autonomia eta ekimenerako gaitasuna: interbentzian landutako ideiak norberak bere buruan antolatu beharko ditu eta gainerakoei adierazi.• Giza eta herritartasunerako gaitasuna: norbera besteengandik desberdina eta bakarra dela ikusita, gainerakoen ezaugarriak onartu eta errespetatu egingo dituzte, elkarbizitza egokia bultzatuz.
Ariketaren deskribapena	<p>Saioa hasi aurretik, arbelean, txartelan idatzita dagoena idatzi egingo da. Ondoren, ikasle guztiak klasera sartu eta haien jesarleketan jesarri egin direnean, ikasleek arbelean dagoena irakurri egingo dute, irakasleak ea irakurri nork nahi duen galdeturik.</p> <p>Leloa bere osotasunean irakurri egin dutelarik, irakasleak ea aurrekoan bezala pentsatzen jarraitzen baduten edo iritziz aldatu duten galdetuko die eta landutako ariketetan ikusitakoarekin lotura bat ezartzen saiatzeko eskatuko die.</p> <p>Irakasleak, ikasleen erantzukizuna ikusita, hausnarketa bideratu egingo du.</p>
Espazioa	Gela
Denboralizazioa	20 min
Erabilitako materiala	<ul style="list-style-type: none">• “Denok gara... “ deituriko txartela
Ebaluazioa	“Denok gara...” ariketa burutzen den bigarren aldi honetan, irakasleak planteatutako galderen inguruan, ikasleek emandako erantzun nabarmenenak erregistratu egingo dira, ariketa hau, aurreko ariketetan landutakoarekin ea harremana edo lotura ezartzen duten aztertuz.

9. Post-test

Helburua	Post-test honetan lortutako emaitzak, hasieran egindako Pre-testakoarekin alderatzea, ikasleen autoezagutza fisikoan ea aldaketarik pairatu diren ala ez ikusteko.
Edukiak	Autoezagutza
Gaitasunak	<ul style="list-style-type: none">Norberaren autonomia eta ekimenerako gaitasuna: izan ere, ikasle bakoitza bere galdetegia egiten arituko da.
Ariketaren deskribapena	<p>Azkenengo ekintzari hasiera emateko, ikasleei post-testa aurkeztuko zaie, azkenengo jarduera dela eta aurretik egindako post-testa bezalakoa dela esanez.</p> <p>Ondoren, bakoitzari berea banatu egingo zaio, ikasle bakoitzari dagokion test zenbakia kontuan izanik. Bakoitzak berea duelarik, kasu honetan, ez da berriz ere irakurriko, aurretik Pre-testa egin zenean irakurri egin zelako. Dena den, ea zalantzarik edo gogoratzen ez duten hitzaren bat badagoen galdetuko zaie, galdetegia egiten hasi aurretik, hori argitzeko.</p> <p>Zalantzak argitu egin direnean, bakoitza bere galdetegiari erantzuten hasiko da eta hauek amaitu egiten dutenean, batu egingo dira.</p>
Espazioa	Gela
Denboralizazioa	25 min
Erabilitako materiala	<ul style="list-style-type: none">Sortutako Post-testa
Ebaluazioa	Post-testarako, Pre-testan lortutako emaitzak, bukaerako galdetegian lortutakoekin alderatu egingo dira, landutako guztia landuta dagoelarik, ikasleengan ea aldaketarik eman diren ikusteko.